

# SAN FRANCISCO



«Golden Gate» zubi zintzilikatua (munduko luzeenetakoa)

Alfonso Sastre-k esan bide zuen behin San Francisco dela munduko hiririk ederrena, edo horrelako zerbait. Eta beste askok gauza bera esan due-la, edo esango lukeela, sinetsita nago.

Eta ez dut uste, benetan, Berkeleyko Unibertsitateagatik denik: campus-eko dorre lerdin luze hark fama merezia badu, San Francisco-k ez du jakinduriaren tenploa ematen. Eta 1968 ondoko profeten biltokia ere ez: arrastorik ez gaur, itxuraz.

1906-ko lurrikara ikaragarriak ere, ez dio gaur bere kutsua erasten. Berre-raiki egin zen hiria goitik behera, eta batimenduren bat kenduz gero, dena da mende honetakoa. Kaleetan barrena ireki ziren arraildura ikaragarrietan hondoratu ziren herritar gizarte-joen garrasiak, aspaldian ahaztu ziren.


Alcatraz bera ere, oso berandu arte gartzeletan beldurgarriena, gaur turismo-leku bihurtu da. Eta pareta zaharren zaharrak, eta hustutako etxetza-rren hutsak, ikaratu egiten badute ere, beren itsusian, kolko ederraren erdian dago Alcatraz uhartea; eta San Francisco gaur, besterik da.

Zer da, beraz?

Orain dela sei bat urte bisitatu nuen, txinatarren urteberri-jaia zen San Franciscon. Sinetsi ezina zen zara-ta: petardoak han eta hemen leher-tzen ziren etengabe: petardo gaitzak, bonbak itxuraz. Eta kale askotan ho-gei bat zentimetro konfetik estaltzen zituzten galtzarak eta ezpaloiak. San Francisco jaietan zegoen. San Francisco jolasten ari zen. San Franciscon jo-koa zen lege eta nagusi.

Eta hitza hori da: jokoa.

Lonbard-kalea, esate baterako, ba-karra da munduan: aldapa gaitzegia izanik (San Francisco muño-mordo batēn gainean eraikia dago; eta lehen-go mazelak hantxe daude, beren har-tan, baina etxez eta kale ezin erpina-goz estalirik), zeharka luzatu dute ka-lean barreneko ibilbidea. Eta kalea, gorri-gorri gainera, itzulinguru guztie-tan lorez mukurru, kotxeak jeisteko moduan dago. Baina, zinez, kale bitxi hartan behera jeistea, ezinezkoa da, gutxienez irribarre egin gabe: karruse-la ematen du!





Tranbiak gora eta behera.

Kaian, «Pier 39» delakoan, eta in-guruko txamarilerietan, kutsu bera: txantxetan ari dira San Francisco-tar-rak. Donostia-ko arrain usaina bera kai-ondoko aterpeetan; baina arrainez gain, otarrainak eta xangurroak doze-naka, jendearen aurrean maneatuak. Mahainetan, horko «Pantxika»enean



«Fisherman's Wharf», San Francisco-ko kai alai.

bezala, ezpaloian, bezerak arraina ja-ten ari... Euria ere bazegoen lehen-goan, xirimiri etengabea... Beraz, zer-taz oroitzen nintzen ez dizuet esango.

Baina, dudarik gabe, San Francis-co-ko folklore bihurtu diren «cable-car» famatuak dira hiriaren sinboloa. 1873-an mamituak, San Francisco-ko tranbiak (kable-tranbiak, egia esan) xahartu egin dira: pentsa, 109 urte luze gora eta behera... Baina beren zah-har-kutsu horretan atxiki dituzte. Gi-datzaileak benetako indar eta eskola-erakusketa egiten du bidaia bakoit-zean: alimaléko palanka haien erabil-keta ez da batere erraza, eta tranbia-ren erdia behar du batzutan kableari eutsiko badio. Eta jendeak barre egi-ten du: zahar eta gaztek, gizon eta emakumek, denek egiten dute barre.

Tranbiei eusteko kanpaña, beti eta hizkun-tza guztietan ari.

Donostian izan ziren «jaránera» haiek bezala erabat zabalik alderdi guztietara euria ari badu, jendea busti egiten da. Baina, joko bat denez (esaten dute-nez baita San Franciscotarrentzat ere), irribarra ez da gelditzen: alda-menetan zintzilik eta blai, baina pozik. Itxura denez!

Eta aldapak ez dira txantxetakoak: %20, %30, erraz. (Beste zenbait kale, sinetsita egon, are %40 eta %50-koak ere badira; baina hauetan oso kotxe gutxi menturatzen da...).

Itsas-kolkoa zoragarria da: Oslo gogoratzen du agian, edo Galizia-ko zenbait «ría baxa». Eta hamaika «bay-cruise» egin daitezke: hona eta hara, luzeago edo motxago... «Golden Gate» zubia, munduan dagoen luzeene-tako bat, ontzitik ikustea, beste joko bat da: mekano munstro batez eraikia, agian.

Eta «cable-car»en txilin-hotsa, eta orain dela berrogei bat urte kaia gurut-zatzen zuten ontzietako pianola-soinu mekanikoa, eta arranbarrilatzen ari diren arrainen usaina, eta Txinatown-eko herensuge koloretsuen irudien oroitzapena, nahasi egiten dira gugan; eta San Francisco, haurtzaroz geroztik ikusi ez genuen hiria bihurtzen da. San Franciscon nagusiak ere ume.

Nola azalduko Los Angeles hotz ho-netara etorri beharrak piztutzen duen deskana?

Baina honetaz beste batez mintzatu-ko natzaizue.


### AYUDE A RESCATAR LOS TRANVIAS DE CABLE

Se ha emprendido una campaña para asegurar que estos monumentos históricos de San Francisco continúen funcionando. Se espera lograr recaudar \$10 millones de dólares.



#### Que Sigam Rodando

Las contribuciones pueden enviarse a:  
The Committee to Save the Cable Cars  
P.O. Box 2888  
San Francisco, California 94126  
Teléfono: (415) 392-4511



Alcatraz-eko gartzela famatua.

Txillardeg

argia.27